

# Lan erreforma: lehen langabetuak, orain "prekario" dun bilakatuak



**Pablo García de Vicuña Peñafiel**  
CCOO Irakaskuntzako  
Idazkari Nagusia

## MARIANO RAJOYREN

gobernuak prestatutako otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege Dekretua –lan merkatuaren erreformarako premia-ko neurriak hartzen zituena– sartu zen indarrez, tsunami baten antzera. Hori gertatu zen CCOO Irakaskuntza Osasun Federazio eta Herritartasun Zerbitzuekin batera mobilizazio konfederalen kanpaina otsailaren hasieratik egiten ari zenean Zerbitzu Publikoen defentsan eta Enplegu eta Negoziazio Kolektiborako II. Akordioaren sinadura (CCOO, UGT, CEOE eta CEPYME) egin berria zelarik.

Otsailaren 11n, Estatuko Aldizkari Ofizialean, argitaratu bezain laster ikusi zen Alderdi Popularraren apustua benetan larria zela eta herri honetako milioika langileen arnasa izoztuta gelditu zen. Gutxirako balio izan zuten De Guindos ministroak edo presidentek berak egindako filtrazio mediatikoek, argitaratutako neurrien gogortasunak lehengo espektatiba guztiak zeharo txikituta utzi baititu.

Bat-bateko shocketik unetik unera hazten zihoan haserrealdira igaro zen, aipatutako errege dekretuak jasotzen zituen lan eskubideen aurkako erasoak ezagutu eta zerrendatu ahala: kaleratzea merkeago (lehen, bidegabeko kaleratzeagatik 45 eguneko kalte ordaina zen urteko, eta 42 hilabetere arte kalkularako; orain, berriz, 33 eguneko kalte ordaina urteko, eta 24 hilabete gehienez kalkularako), ultrajardueraren akotazioa (aldean artean hitzarmen berria sinatzeko akordioak ez badago, bi urteko luzapena gehienez), arrazoi ekonomikoengatik kaleratzea zabalitzen da (hiru hilabeteetan espero zena baino diru sarrera gutxiago badago, ez diru galtzerik, nahikoa izango da langileak kaleratzeko 20 eguneko kalte ordaina emanda) edo ERE kasuetan baimen administratiboaren tramitea desagertzen da. Hortxe daude aipatuta egoera gogorrenetako batzuk.

Baina horretaz gainera, Rajoyren Lan Erreformatan orain dela gutxi gizarte eragileek onartutako lan negoziatorako markoa boikotatu du (lehen aipatutako II. Akordioa) itundutako neurri horietako batzuk nabarmen aldatuz: enpresaburuaren erabakiaz bakarrik alda daitezke lan jardunaldia, ordutegia eta langileen eginkizunak, kontrako alderdiarekin adostu gabe; lan jardunaldia bertan behera utzi edo murriztu daitezke, ez du Laneko Ikuskatzailtzak onartu beharrik; enpresako hitzarmenek izango dute lehentasuna goragoko kategoriakoan gainetik, etab. Laburbilduta, oinarriko arau honen arabera, edozein enpresaburuk behartu ditzake bere langileak, dekretua argitaratu denetik, lehen baino baldintza soziolaboral okerragoetan lan egitera, indarreko lan legeria hautsi gabe.

Horiek guztiak ikusirik, esan daitezke, guztiz txundituta, neoliberalismoaren garaipea gertatzen ari dela, baina haren bertsiorik garrantz eta erradikalena, gainera. Neokontserbadorismoa iritsi da, hilabete askototan erasotzeko jarrera argi erakutsi du, eta, dirudienez, gure artean luzaroan iraun nahi du, zeren eta azkenean lortu baitu une egokia –behin kapitalak eta politikak bat eginda– sekulako zartakoa emateko eta, ondorioz, berebiziko ondorioak eragingo dizkigu.



Batetik, espainiar enpresaburuak ditugu, zeinek, ehuneko handi batean, nahiago baitute lan kostuen mistifikazioa zabaldu, adierazpen bakar gisa, haien negozioen produktibitate txikia arazotzeko, teknologiarik berrikuntza eta egokitzapena erabili beharrean nazioartera hedatzerakoan. Bestetik, Alderdi Popularrak, barruan kabitu ezinik, erakundeetan lortu duen botereagatik, Merkel eta Sarkozyren katedran, eskaintako lehen aukera baliatu duena, ikasle argiena bezala azaltzeko. Ez entzurenarena egin du Espainiako gizarte eragileek adostasunaren alde proposatutako argudioen aurrean eta gastu publikoak mozteko buruzagi gisa aurkeztu du bere burua, eta bost axola dio dagoeneko hain jota dagoen ongizatearen estatua are gehiago ahultze den. Zer mailatan betetzen da Mendekotasun Legea? Irakaskuntzaren eta Osasunaren doakotasunaz hitz egiten jarraitzerik izango al dugu? Eta hori dena aurrekontuen saneamenduaren aitzakia hartuta, "0 defizita! lortzeko asmotan, lehenago gobernuan zegoen eta orain opositoria den Alderdi Sozialistak beatifikatu zuena. Gobernu helburu hori gero eta kritikatuagoa da nazioartean (Ameriketako Estatu Batuak buru), ekonomi politika horrek ez duelako aukerarik ematen hazkunde proiektuetan inbertitzeko, ez duelako etorkizunari begira konfiantzarik sortzen. Horrelaxoxe argudioak erabili zituen sindikatu honek krisialdiaren hasieratik, orain hiru urte baino gehiago.

Lan erreforma hau oso erregresiboa da langileen interesetarako; hala ere, baliteke erreformaren ondorio latzenak aurrerago ikustea. Ondorio ekonomikoaz gainera, ondorio psikosoziala ere bai. Egoera horretara iritsita, ez genuke langabetuez bakarrik hitz egingo –aurreikuspenen arabera, datozen hilabeteetan hazten joango da kopurua–, gaina hartuko luke adituek "prekariado/a" ("prekario" dun) terminoaz izendatzen dutenak: ekonomiatik eta kulturatik baztertutakoa, elite pribilegiatutik eta langile gaitutik urrundua. Lan prekarietatea dela eta, psikologikoki nahiko jota egongo dena eta, hiriko nomada den heinean, bizirik iraungo duena ozta-ozta, ezkutuko ekonomiarik eta langabeziaren prestazioei eskerrak. Bizitzak, erakunde politikoekiko, mesfidantza izatera bultzatuko du eta pentsa liteke populismoen eta estremismoen bazka (nazionalismo amorratua, protekzionismo patriotikoa eta antieuropeismoa) izango dela. Horien identitate ezaugarriak gero eta nabariago dira: amorruek, anomia, antsietatea eta alienazioa. Adina ez dago definitua, baina gazteak eta langabeziaren dauden helduak dira azaldukotik hurbilen egongo direnak.

XIX. mendean gertatutako industrializazio prozesuak eszenan jarri zuen, kapitalak eta lanak sortutako aberastasuna banatzeko, burgesiaren eta langileriaren arteko klase borroka. Eskema bi mendetan mantendu da aldaketarik gabe; orain, berriz, aldatzen ari da. Antza denez, lan kontuei erreparatu gero, XXI. mendeko bigarren hamarkadan bestelako gizarte banaketa bat ikus genezake, aldean arteko oreka gainditu beharrean, ziurgabetasunak gehitu eta kolektibo ahulenetan eragin lezake aldaketak.

Horregatik guztiagatik, benetan garrantzitsua da Lan Zuzenbideak zuen harreman soziolaboral desberdinduen rol orekatzailea berreskuratzea, Erreforma honek nabarmen murriztu baitu. Hortaz, ekin diezaiogun helburu horri, luzamendutan ibili gabe. Aurrez aurre jarritz, negoziatuz, mobilizatuz, exijituz.

# Reforma Laboral: del parado al “precariado”

Pablo García de Vicuña Peñafiel, Secretario General CCOO Irakaskuntza

**EN MEDIO DE LA CAMPAÑA** de movilizaciones confederales en defensa de los Servicios Públicos que, junto con las Federaciones de Sanidad y de Servicios a la Ciudadanía, Irakaskuntza venía realizando desde principios del mes y con la firma aún fresca del reciente II Acuerdo para el Empleo y la Negociación Colectiva (CCOO, UGT, CEOE y CEPY-ME), irrumpía como un tsunami el Real Decreto Ley 3/2012, de 10 de febrero, de medidas urgentes para la reforma del mercado laboral, elaborado por el gobierno de Mariano Rajoy.

Desde su misma publicación en el BOE –el sábado, 11– se vio la gravedad de la apuesta conservadora del Partido Popular y la respiración de millones de trabajadores y de trabajadoras de este país quedaba congelada. De poco habían servido las filtraciones mediáticas realizadas por el ministro De Guindos o el propio presidente, porque la contundencia de las medidas expuestas superaba con creces cualquier expectativa previa.



El repentino shock fue dejando paso a una indignación creciente, a medida que se iban conociendo y desgranando los ataques a los derechos laborales que se contemplaban en el citado real decreto: abaratación del despido (de 45 días por año de indemnización por despido improcedente y hasta 42 meses de cálculo, se pasa a 33 días y un máximo de 24 meses de cálculo), acotación de la ultraactividad (hasta un máximo de 2 años de prórroga si no hay acuerdo entre las partes para el nuevo convenio), ampliación del despido por causas económicas (tres meses de ingresos –no de pérdidas– por debajo de lo esperado será suficiente para el despido con 20 días de indemnización) o eliminación del trámite de la autorización administrativa en los casos de ERE, por citar solo las situaciones más flagrantes.

Pero es que además, la Reforma Laboral de Rajoy ha boicoteado el marco de negociación laboral recientemente aprobado por los agentes sociales (el II Acuerdo antes aludido), mediante cambios sustanciales de algunas de las medidas pactadas: modificación unilateral por el empresario de la jornada, horario y rendimiento de funciones, sin necesidad de pacto de la contraparte; suspensión o reducción de la jornada laboral sin aprobación de la Inspección de Trabajo; prevalencia de los convenios de empresa por encima de cualquier otro de superior categoría,... En fin, se ejecuta con carácter de norma básica que cualquier empresario podrá obligar a sus trabajadores/as a aceptar unas condiciones sociolaborales peores que las que tenían hasta entonces, sin que ello signifique una vulneración de la legislación laboral vigente.

Estamos asistiendo, por tanto, y con total estupor, al triunfo efectivo del neoliberalismo en su versión más abrupta y radical; a la llegada del neoconservadurismo, durante muchos meses ya en actitud beligerante, con intención de asentarse por largo tiempo entre nosotros/a, porque, por fin, ha encontrado el momento propicio para atestar un golpe de inusitadas consecuencias con la unión del capital y la política.

De un lado, un empresariado español, que en un amplio porcentaje, prefiere decantarse por la mistificación de los costes laborales como única explicación de la flagrante baja productividad de sus negocios, en vez de utilizar la innovación y la adecuación tecnológica en su competencia internacional.

Del otro, un Partido Popular, exultante en su dominio institucional que no ha desaprovechado la primera oportunidad brindada para convertirse en el alumno más aventajado de la cátedra Merkel-Sarkozy. Ha desoído los argumentos de consenso concitados entre los agentes sociales españoles y se ha presentado como el adalid de los recortes de gasto público, sin importarle la situación de debilitamiento al que está llevando al ya maltrecho estado del bienestar. (¿En qué grado de cumplimiento está la Ley de Dependencia? ¿Podremos seguir hablando de gratuidad en la Enseñanza y Sanidad? ¿?) Todo en aras de la santificación del saneamiento presupuestario, de la consecución del “déficit 0”, ya beatificado por su antecesor y ahora opositor Partido Socialista. Un objetivo de gobierno cada vez más contestado internacionalmente (con EEUU a la cabeza) por ser una política económica que no permite invertir en crecimiento ni generar confianza en el futuro. (Por cierto, argumentos utilizados por este sindicato desde el principio de la crisis, hace más de tres años).

Pero con ser claramente regresiva para los intereses de los/as trabajadoras esta reforma laboral, su aportación más lesiva puede que esté aún por llegar. Y no sería sólo económica, sino psicosocial. Porque no estaríamos hablando solo de desempleados/as –por cierto, en aumento en los próximos meses, según todas las previsiones– sino del encumbramiento de lo que los expertos denominan con el término “*precariado/a*”: aquel/la excluido económico y cultural, distanciado tanto de la élite privilegiada como del trabajador/a cualificado. Psicológicamente se encuentra en un estado de desgaste notable, dada su precariedad laboral; como nómada urbano que es, sobrevive entre la economía sumergida y las prestaciones por desempleo. La vida le está haciendo desconfiar de las instituciones políticas y es previsible pasto de populismos y extremismos (nacionalismo exacerbado, proteccionismo patriótico y antieuropeísmo). Sus señas de identidad son cada vez más identificables: ira, anomía, ansiedad y alienación. No tiene una edad predefinida, aunque jóvenes y adultos en paro son los más próximos.



El proceso industrializador en el mundo de siglo XIX puso en escena la lucha de clases entre burguesía y proletariado por el reparto de la riqueza generada por el capital y el trabajo. Ha sido un esquema invariable durante dos siglos, que parece ahora entrar en revisión. La segunda década del siglo XXI puede estar asistiendo al inicio de una nueva redistribución social que, lejos de superar el desequilibrio entre las partes, aumente las incertidumbres y debilite a los colectivos más débiles, laboralmente hablando.

Por ello es importante devolver el papel equilibrador de las desiguales relaciones sociolaborales que tenía el Derecho Laboral y que esta Reforma le ha reducido ostensiblemente. Y a ello tenemos que ponernos sin más dilación. Confrontando, negociando, movilizándolo, exigiendo.